



COVID-19 araudia Aritzbatalde kiroldegian.

- Arautegiaren helburua da Aritzbatalde kiroldegiko langileak eta erabiltzaileak SARS-CoV2arekin kutsatzeko arriskuak minimizatzea.
- COVID-19 arautegia zuhurtasun eta zorrotzasun printzipioetan oinarritzen da, eta bateragarria izango da unean indarrean diren araudiekin eta beharren arabera egokitzapenekin. Horretarako, Kirol Departamentuak eranskin gisa garatu eta arautuko ditu Aritzbatalde kiroldegiko eremu bakoitzeko aldiaren berezko prozedura eta beharrak. Aldaketa esanguratsuak diren kasuetan, Alkatetzaren dekretu bidez onartuko dira.
- Aritzbatalde kiroldegiko COVID-19 arautegia eta osasun-agintariek edo organo eskudunak zehaztutako COVID-19 araudiak osagarriak dira.
- Aritzbatalde kiroldegiak COVID-19 diziplina-araubide propioa izango du, betiere udal kiroldegiko araudiko zigor-araubidearen baitan. Arau-haustekak, erabilera okerrak, desegokiak eta/edo kalteak intzidentzia-erregistroaren bidez kudeatuko dira.
- Zerbitzuko langileek eskumena izango dute araudia interpretatzeko eta unean-unean esku hartzeko, egoerak horretara behartuz gero.
- Arautegi hau aplikagarria da gainerako udal kirol-instalazioetan ere.
- Erabiltzaile guztiak behartuta daude arauok zorrotz betetzera.

OROKORRA

1. ARITZBATALDE COVID-19 KIROL PLANean zehaztutako dira instalazioaren irekiera, erabilera eta kontrolerako gai guztiak.
2. Une oro beteko dira osasun-agintariek edo organo eskudunak jarritako osasun eta babes-neurriak.
3. Erabiltzaileak COVID-19aren sintomak izanez gero, ezingo da kiroldegira sartu, eta bere osasun-zentzura deitu beharko du.
4. Instalazioetara sartu aurretik eskuak desinfektatu behar dira, gel hidroalkoholikoa erabilita (eskuragarri egongo da).
5. Instalaziora maskarekin sartu behar da, eta une oro erabiliko da. Osasun-agintariek edo organo eskudunak ezarritako moduan erabili beharko da. Maskara jantzita ekartzen ez duenari ez zaio sartzen eta bertan egoten utziko, eta ezingo da osasun-agintariek edo organo eskudunak ezarritakoaz bestelako moduan erabili. Debeztatuta dago maskara erdi-gardenak erabiltzea (2021eko otsailaren 5eko 0222 Alkatetza Dekretua).



6. Osasun-agintariak edo organo eskudunek unean uneko araudian ezarritako pertsonen arteko distantzia fisikoa bete behar da.
7. Kiroldegira sartzeko toalla bat ekarri behar da, norbere higiena, gainazalak eta materialak babesteko, une oro eta salbuespenik gabe.
8. Gune batzuk itxita egongo dira COVID-19 osasun neurriak bete artean.
9. Gune bakoitzerako bereziki jarritako sarrerak, irteerak eta zirkulazio-norabideak erabiltzea derrigorrezkoa da. Kiroldegiko jarraibideei, seinaleei, megafoniari, karteletako mezuei eta zerbitzuko langileek esandakoei kasu egingo zaie, zirkulazioa eta erabilera segurua izateko.
10. Kiroldegi barruko ateak irekita egongo dira, kontaktuak minimizatzeko eta aireztapena errazteko.
11. Bakarka egingo da erabilera kiroldegiko gune orotan, araudiek kontrakorik adierazi ezean.
12. Erabiltzaileek beraien material txikia ekartzeko baimena dute, baina bertako langileari erakutsi behar diote eta horren oniritzia jaso erabili aurretik. Oniritzirik gabe debekatua dago erabiltzea. Material hori ezin da kiroldegian jaso.
13. Kirol klubek edo beste eragileren batek kirol instalazioak erabiltzeko ARITZBATALDE COVID-19 KIROL PLANA bete beharko dute.
14. Erabilera baimenak une oro ikuskatuko dira. Eskatzaileak du eguneratzeko ardura eta unean uneko informazioa Udalarari helaraztekoa. Azken honen oniritzia ezinbestekoa da baimena berritzeko.
15. Unean uneko erabilera definitzeko azken hitza zerbitzuko langileek daukate.



ZIGOR ARAUBIDEA

16. Udal kiroldegiko araudia aplikatuko da une oro, eta bere baitan, zigor araubidea.
17. Osasun-aginteriek edo organo eskudunak ezarritako arauak, ARITZBATALDE COVID-19 KIROL PLANA edo zerbitzuko langileen esanak ez betetzea arau-haustetzat hartuko da.
18. Kirol Departamentuari baino ez dagokio arau-haustearen larritasuna zehaztea, hala badagokio ohartaraztea, eta, beharrezkoa bada, erabiltzaile-eskubidea aldi baterako kentzea. Halaber, berari dagokio diziiplina-espedientea zabaldu behar ote den zehaztea, eta, aurrera eginez gero, Udalarekin batera zigorra zehaztea.
19. Instalazioko zerbitzuaren langileek ahalmena dute erabiltzaile arau-hausleak ohartarazteko eta unean bertan kanporatzeko, hitzezko ohartarazpenei jaramonik egiten ez badiete edo/eta testuinguruak horrela eskatzen badu.
20. Intzidentzien erregistroan apuntatuko dira erabiltzaileen arau-haustekak.
21. Hiru arau-hauste arinekin, ohartarazpena egingo zaio erabiltzaileari, eta, gertaerak horrela eskatuz gero, aldi baterako kenduko zaio erabiltzaile izateko eskubidea: gehienez ere hilabeteko epea.
22. Arau-haustea larria bada (maskara gabe kiroldegira sartzea, langileen jarraibideei jaramonik ez egitea, iraintzea...) ohartarazpena egingo zaio erabiltzaileari, eta, gertaerak horrela eskatuz gero, aldi luze baterako kenduko zaio erabiltzaile izateko eskubidea: gehienez ere urtebetez.
23. Arau-hauste larri bat baino gehiagorekin, erabiltzaile-eskubidea behin betiko kentzeko eskumena du Udalak.
24. Erabiltzaile-eskubideaz aldi baterako gabetutako aldian (iraupena edozein dela ere), zerbitzu horri dagokion zenbateko osoa kobratuko da. Hala ere, erabiltzaileak baja eskatzeko eskubidea izango du, eta eskaera egin eta hurrengo hilabetean izango du eragina.



I. eranskina
HARRERA ZERBITZUA

1. Maskara derrigorrezkoa da, eta ezingo da inola ere kendu, mostradorean babes-manparak egon arren. Maskararik gabe ez da sartzen utziko.
2. Instalazioetara sartu aurretik eskuak desinfektatu behar dira, gel hidroalkoholkoa erabilia (eskuragarri egongo da).
3. Osasun-agintariek edo organo eskudunek unean uneko araudian ezarritako pertsonen arteko distantzia fisikoa bete behar da.
4. Ordainketak banku-txartelaren bidez edo helbideratuta egitea gomendatzen da; ahal dela ez da esku-dirurik erabiliko.
5. Unean uneko erabilera definitzeko azken hitza zerbitzuko langileek daukate.



II. eranskina

FITNESS ZERBITZUA

1. Lehenengo solairuan fitness eremua egongo da.
2. Solairua hiru gunetan egongo da banatuta: fitness cardio-tono, fitness cardio-bike eta luzaketetarako gunea.
3. Instalazioetara sartzeko tornuetatik eta Araba kaleko eskaileretatik sartu beharko da fitness-gunera.
4. Sarrera bakoitza seinaleztatuta egongo da, eta ezinbestekoa da gune bakoitzeko jarraibideak eta araudia betetzea.
5. Segurtasuneko tarte fisikoa une oro errespetatu behar da, bai kiroldegiaren sarreran bai guneetan bertan.
6. Instalaziora maskara jantzita sartu beharko da, eta une oro erabiliko da. Ezingo da maskararik gabe sartu. Ariketa egiten den eremuan, osasun-agintariek edo organo eskudunak ezarritako araudia aplikatuko da une oro.
7. Sartzeko derrigorrezkoa izango da eskuak desinfektatzea eta toalla ekartzea. Bestela, ezingo da sartu.
8. Jarduera bakarka egingo da.
9. Erabiltzaileek beraien material txikia ekartzeko baimena dute, baina bertako langileari erakutsi behar diote eta horren oniritzia jaso erabili aurretik. Oniritzirik gabe debekatua dago erabiltzea. Material hori ezin da kiroldegian jaso.
10. Araudian ezarritako distantzia fisikoa errespetatuko da une oro. Kirol-makinak segurtasun-tartea errespetatzeko moduan kokatu dira. Debeekatuta dago makinak mugitzea.
11. Saioan erabilitako materiala erabili ondoren desinfektatu beharko da. Pertsona bakoitza arduratuko da erabilitako materiala garbitzeaz horretarako ezarritako garbiketa-guneetan.
12. Espazioetatik atera aurretik, eskuak desinfektatu beharko dira nahitaez.
13. Ezingo da arropa aldagelaren barruan utzi; korridoretan horretarako prestatutako armairuetan utzi beharko da.
14. Kiroldegira arropa egokiarekin jantzita eta prest joatea gomendatzen da.
15. Zerbitzuko langileek izango dute azken hitza erabilera bakoitza zehazterakoan.



III. eranskina IGERILEKUAK

1. 10 urtetik beherako haur guztiek adin nagusiko pertsona bat izan beharko dute une oro haietaz arduratzeko.
2. Instalazioetara sartzeko tornuetatik sartuko da igerilekura, eta atera, berriz, instalazioen alde zaharretik (kantxaren ondotik).
3. Larunbat eta igandeetan igerileku txikia erabiltzeko alde z aurretik erreserba egin beharko da. Ezingo da erreserbarik gabe sartu.

Erreserbaren ordutegia zorrotz bete beharko da, bai igerilekuan egon daitekeen gehieneko denbora, bai sartzeko ordutegia (ezin izango da ordutegi horretatik kanpo sartu), bai irteteko ordutegia.

Zerbitzuko langileek kontrolatuko dituzte sarrerak (asistentzia-zerrenden bidez) eta irteerak.

Ez-betetze bakoitza intzidentzia gisa erregistratuko da.

4. Segurtasun-distantzia fisikoa gorde beharko da nahitaez, bai kiroldegiko sarreran, bai espazioetan.
5. Instalaziora maskara jarrita sartu beharko da, eta une oro erabiliko. Uretan sartu aurretik bakarrik kendu ahal izango da maskara, eta berriro jarri beharko da igerilekutik irten eta berehala. Erabiltzaileek behar bezala gorde beharko dute maskara denbora-tarte horretan. Ariketa egiten den eremuan, goi-organoek ezarritako araudia aplikatuko da une oro.
6. Igerilekura sartu aurretik nahitaez dutxatu beharko dira erabiltzaileak.
7. Ariketa bakarka egin beharko da.
8. Erabiltzaileek beraien material txikia ekartzeko baimena dute, baina bertako langileari erakutsi behar diote eta horren oniritzia jaso erabili aurretik. Oniritzirik gabe debekatua dago erabiltzea. Material hori ezin da kiroldegian jaso.
9. Igerileku handia eta ertaina alde z aurretik erreserbarik egin gabe erabili ahal izango dira.
10. Igerilekuetan, segurtasun-tartea gordeko da une oro pertsonen edo pertsona-multzoen artean.
11. Gune hezea eta termala itxita egongo da.
12. Aldagelen erabilera unean-uneko araudiaren eta egoeraren arabera zehaztuko da.
13. Arropa ezin izango da aldagelaren barruan utzi, korridoreetan horretarako prestatutako armairuetan baizik.
14. Zarauzko Udalak antolatutako jarduerak lehentasuna izango dute igerilekuen eta bertako kaleen erabileran eta erreserban.
15. Unean uneko erabilera definitzeko azken hitza zerbitzuko langileek daukate.



IV. eranskina
ARITZBATALDEKO FRONTOIAK
(pilotalekua eta squash)

1. Pilotalekuak erabiltzeko beharrezkoa izango da erreserba izatea.
2. Ate nagusitik sartu beharko da, harreran erreserba egiaztatuko da eta ordainketa une berean egingo da.
3. Instalaziora maskara jantzita sartu beharko da, eta une oro erabiliko da, arauak kontrakoa adierazten ez duen bitartean. Ezingo da maskararik gabe sartu. Ariketa egiten den eremuan, osasun-agintariek edo organo eskudunak ezarritako araudia aplikatuko da une oro.
4. Segurtasun-distantzia fisikoa une oro mantenduko da, bai pilotalekuko sarreran, bai bertako gunetan.
5. Puntuala izan beharra dago.
6. Pilotalekura arropa egokiarekin jantzita eta prest joatea gomendatzen da.
7. Aldagelen erabilera unean-uneko araudiaren eta egoeraren arabera zehaztuko da.
8. Hitzordu bat bertan behera uzteko, 15 minutu lehenago egin beharko da; bestela, erabili gabekotzat hartuko da. Erabili gabeko erreserba bakoitza arau-haustetzat hartuko da, intzidentzia gisa erregistratuko da eta zehapen-araubidea aplikatuko zaio.
9. Zerbitzuko langileek izango dute azken hitza une bakoitzean erabilera zehazteko orduan.